













Ariketak

Irudiak ikusi eta galderei erantzun.
Mira las ilustraciones y contesta las preguntas.

KOLDO	IZASKUN	MIKEL	BEGOÑA
 - Nor da hau? - Hau, Koldo da.	 - Nor da hau? - Hau, Izaskun da.	 - Nor da hau? - Hau, Mikel da.	 - Nor da hau? - Hau, Begoña da.
 - Zer da Koldo? - Koldo, gizona da.	 - Zer da Izaskun? - Izaskun, emakumea da.	 - Zer da Mikel? - Mikel, mutila da.	 - Zer da Begoña? - Begoña, neska da.
 - Zer da hori? - Hori, burua da.	 - Zer da hori? - Hori, begia da.	 - Zer da hori? - Hori, eskua da.	 - Zer da hori? - Hori, liburua da.

Zer da Koldo?





Koldo emakumea da?

Nor da emakumea?

Zer da Mikel?

Begoña mutila da?

Non dago begia?





 - Zer da hura? - Hura, herria da.	 - Zer da hau? - Hau, bidea da.	 - Zer da hura? - Hura, mendia da.	 - Zer da hori? - Hori, autoa da.
---	--	---	---

Non dago zuhaitza?

 - Hau, Koldo da? - Bai, hau Koldo da.	 - Hau, emakumea da? - Bai, hau emakumea da.	 - Hau, neska da? - Ez, hau ez da neska; hau mutila da.	 - Hau, gizona da? - Ez, hau ez da gizona; hau neska da.
---	---	--	---

Koldo gaztea da?

Begoña gizona da?

 - Hura herria da? - Bai, hura herria da.	 - Hau, autoa da? - Ez, hau ez da autoa; hau etxea da.	 - Hau, mendia da? - Ez, hau ez da mendia; hau bidea da.	 - Hura etxea da? - Ez, hura ez da etxea; hura mendia da.
--	---	---	---

Mendian etxe asko dago?

Galdezka

Ikusi ikasgelako gauzak eta egin galderak elkarri.
Fíjate en los objetos de clase y pregunta a tus compañeros:
Zer da? Non dago?

Ana "Euskalduna" hotelean dago. Pozik dago, Euskal Herrian dago eta hori amets handia da. Euskal Etxean egindako lanak ikusten ari da. Anak ariketa hau egin zuen bere Euskal Etxean. Ea orain zuk egin!

Ana está en el hotel "Euskalduna", en donde tiene reservada una habitación. Se ha cumplido su gran sueño: estar en Euskal Herria. Mientras descansa un poco, está repasando un ejercicio de euskara que realizó en su Euskal Etxea. ¡A ver si tú también eres capaz de hacerlo!

Euskal pertsonaiak

Irakurmena

Lotu irudiak eta testuak.
Relaciona las imágenes con los textos.



1

2

3

4

Pedro Miguel Etxenike

Zientzialaria da. Oso famatua da. Sari asko ditu eta Euskal Herriko Unibertsitatean katedraduna da eta doktorea Cambridgeko Unibertsitatean. Betaurrekoak ditu eta ile zuria. Izabakoa da. Izaba Nafarroan dago, iparraldean.

Lucia Lacarra

Dantzaria da, oso famatua da. Municheko Operako balleteko bakarlaria, solista, da. Zumaiakoa da, baina orain Munichen dago. Lan asko du eta gala asko ditu, famatuena 2007ko Urte Berriko Vienako kontzertua. Ile luzea eta beltza du. Oso argala da.

F. Muguruza

Abeslaria da. **Kortatu** eta **Negu Gorriak** taldeetako abeslaria. Bere azken diskoa "Euskal Herria Jamaika Clash" da. Jamaikan grabatuta dago. Diskoko musikariak Euskal Herrikoak eta Jamaikakoak dira. Bere bi anaiak ere- Iñigo eta Javier- musikariak dira. Irungoa da eta Irunen bizi da. Irun Gipuzkoan dago, iparraldean.

Ainhoa Arteta

Emakume hau Tolosakoa da. Ile horia du. Alaba bat du. Abeslaria da, sopranoa. Lehiaketa asko irabazi ditu. Lehen New Yorken, baina orain Tolosan bizi da. Ile motza du, horia.

Erantzun galderei. Contesta a las preguntas.

Zer da Etxenike?
Nongoa da sopranoa?
Non bizi da Ainhoa?
Non bizi da Negu Gorriak taldeko abeslaria?

Non dago Izaba?
Nor da zientzialaria?
Nongoa da dantzaria?
Non bizi da orain Lucia Lacarra?

**entzumena**

Entzun eta asmatu nor diren gure pertsonaia famatuak.
Escucha la grabación y adivina quiénes son nuestros famosos.

Nor da?**1****2****3****4****Txema Olazabal****Miren Azkarate****Jose Luis Zumeta****Bernardo Atxaga****Galderei erantzun****Nor da emakume hau?**

- a) Emakume hau Miren da.
- b) Miren emakume hau da.
- c) Emakume hau Mikel da.

Zer da Bernardo?

- a) Idazlea Bernardo da.
- b) Bernardok liburu asko du.
- c) Bernardo idazlea da.

Zer da Miren?

- a) Politikaria Miren da.
- b) Miren politikaria da.
- c) Miren Donostiakoa da.

Nongoa da Miren?

- a) Donostiakoa Miren da.
- b) Miren ez da Donostiakoa.
- c) Miren Donostiakoa da.

Zenbat txaketa ditu Olazabalek?

- a) Bi txaketa berde ditu.
- b) Hiru.
- c) Txaketa bat du.

Nongoa da Bernardo?

- a) Bernardo Zalduondokoa da.
- b) Bernardo Asteasukoa da.
- c) Asteasukoa Bernardo da.

Non bizi da Zumeta?

- a) Zumeta Usurbilen bizi da.
- b) Zumeta Usurbilgoa da eta Usurbilen bizi da.
- c) Zumeta Usurbilgoa da, baina Gorritin bizi da.

Nor da margolaria?

- a) Zumeta margolaria da.
- b) Usurbilgoa da margolaria.
- c) Zumeta da margolaria.



mintzamena

Zein pertsonaia euskaldun ezagutzen duzu? Zer da?
¿Qué personaje vasco conoces? ¿Qué es?